



**BIZITEGI ERAIKINA**  
C MAILA**AITA LARROKA 3**

Egilea eta data: Francisco Urcola, 1908

**Deskribapena**

San Ignazio elizarantz, bi alboetan kale arkuteriaduna berekin ekarriko lukeen araudiari lotutako bigarren etxea. Gari hartan, Jose de Goicoa udal arkitektoa zen eta, adierazitako eliza eraikitzen ari zen bitartean, estilo neogotikoko eredu zko fatxada bat planteatu zuen 1895ean. Fatxada horretara egokitu beharko zuen Aita Larroka kalearen aurrean egongo zen eraikuntza orok. 3 zenbakia Francisco Urcolak proiektatu zuen 1908an, fatxadarako Goicoak ezarritako araudiari jarraituz. Behe oina eta sei goi solairu ditu, azken biak mantsardadunak eta duela gutxi eraikitako jasodura gisa. Laugarren solairuaren fatxada eraldatu egin da jatorrizko mantsardarekiko. Jatorrizko banaketan, alderik aldeko bi etxebizitza asimetrico konfiguraturata daude. Jatorrizko arkuteria irekia behe oineko eta lehen oineko aprobetxamenduz okupatu da.

**Babes erregimena**

- 1.- Babes erregimen orokorra:
  - Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.
  - Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorrean ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
  - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: laugarren oina eta jasodurak.
  - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlandu elementuak.
  - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
  - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.